



## NAMARMENAK

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak abian jarri du Espainiako zuraren merkataritzaren inguruko informazio sistema: "Lignum".

MAPA, 2018/11/26 - **BERRIRAKO ESTEKA**

Nekazaritza Arrantza eta Elikadura Ministerioko (MAPA) Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektorialak onartu egin du merkaturatutako zuraren legezkotasuna kontrolatzeko Plan Nazionala.

MAPA, 2018/10/08 - **BERRIRAKO ESTEKA**

Espainiak basogintza delinkuentziaren inguruko nazioarteko konferentzian parte hartu du.

MAPA, 2018/09/10 - **BERRIRAKO ESTEKA**  
INTERPOL, 2018/09/10 - **BERRIRAKO ESTEKA**

MAPA, 2018/09/26



## BERRIAK

EFI-FLEGT, 2018/10/19



Europar Batasunak eta Vietnamek FLEGT elkarte akordio boluntario bat izenpetu dute legez kanpoko mozketaren aurka borrokatzeko eta legezko zuraren merkataritza sustatzeko

**BERRIRAKO ESTEKA**

COM, 2018/10/05



Europako Batzordeak 2017ko EUTR Txostena onartu du

**BERRIRAKO ESTEKA**




## Merkaturatutako zuraren inguruko erantzukizunpeko adierazpenen aurkezpenerako 2019ko kanpaina

2019ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, EUTR agenteek 2018ko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahaliko dute "EUTR" doako eta lineako aplikazioa erabilita. Iaz bezala, aplikazioak zuraren eta haren produktuen merkataritzaren legezkotasunaren inguruko Espainiako eta Europako araudiaren aplikazioa ahalbidetzen du.

Baso jabeek, errematatzaileek edo enpresa inportatzaileek martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dute, beren helbide edo egoitza sozialaren autonomia erkidegoko agintaritza eskudunaren aurrean, erantzukizunpeko adierazpen bat, aurreko urtean merkaturatutako zuraren produktuen inguruko informazioa barne duena.

Aurkezpen hori burutzeko lineako EUTR aplikazio informatikoa erabil dezakete:

<https://servicio.mapama.gob.es/eutr/>



## Inportazio arriskutsuak

### Myanmarren ustiatutako teka zuraren eta Brasilen ustiatutako ipe zuraren inportazioen legezkotasunik ezaren arrisku handia mantenduko da

2018ko irailaren 27an eta abenduaren 7an burututako bileretan, **Europar Batasuneko FLEGT eta EUTR Adituen Taldeak** 2017. urtea baino lehenago ustiatutako Myanmarreko teka zuraren inportazioen inguruko iritzia mantentzea erabaki zuen: agenteek ezin dute behar bezala arindu legez kanpoko mozketaren arriskua. Estatu kideetako agintaritzak eskudunek jasotako bermeak, frogak eta egiaztapenak ez dira nahikoa izan EUTR erregelamenduan xedatutako arrazoizko arreta obligazioak behar bezala bete direla frogatzeko.

Zentzu horretan, Alemaniako agintaritzak eskudunak, Nekazaritza eta Elikadura Bulego Federalak (BLE), 2018ko ekainaren 13an argitaratu zuen **prentsa ohar** bat Myanmarretik datozen teka inportazioen arrisku handiaren inguruan. Ohar horretan nabarmendu egin zen, herrialde honen deforestazio eta ustelkeria maila altuak direla eta, agenteek kontuan hartu behar dutela EBan legez kanpo eskuratutako zura edo zurezko produktuak sartzeko arriskua badela.

Halaber, 2018ko abenduaren 7ko bileran, **Europar Batasuneko FLEGT eta EUTR Adituen Taldeak** Brasilen inguruko ondorioak onartu zituen.

Bilera hartan zehaztu zen mozteko eskuragarri dauden zur baliotsuen bolumenen gehiegizko estimazioa burutzen dela, batez ere ipe (*Tabebuia impetiginosa* eta *T. serratifolia*) zuraren kasuan, baina baita massuranduba eta angelim vermelho zuren kasuan ere. Gehiegizko estimazio hori babestutako eremuen inguruko esleipenetan gertatzen da bereziki. Era berean, egoera hori are larriagoa da kontuan hartuta ustelkeria arriskua handia dela eta indigenen eskubideen aurkako delituak eta erdiesklabotza lan egoerak gertatzen direla.


Kasu hauek Amazonas ibaiaren Brasilgo arroan ematen dira batik bat, Rondonia, Pará, Mato Grosso eta Amazonas estatuetan.

Ondorioz, Brasilgo Amazoniatik zura inportatzen duten agenteek arriskua arintzeko neurri egokiak hartu beharko dituzte. Hau da, arriskuen analisia dokumentazio kontroletan soilik oinarritu beharrean, hirugarrenek burututako egiaztapen faktualetan oinarritu beharko dute.

### Egoera zaila Ukrainan

Bi azterlan independentek agerian utzi dute Ukrainako basogintzaren sektoreko ustelkeria eta legezkotasunik ezaren maila altuak, **Earthsight** erakundearen txosten batek 2018ko uztailan lehenengoz adierazitako moduan.

Herrialde honek legez kanpoko mozketaren aurkako borroka indartu egin du 2017an eta 2018an zehar eta Europar Batasunarekin lankidetzan ari dira basogintza sektorearen erreformarako esparruan. Hala ere, egoera honek hobera egin bitartean, herrialde honetatik datozen merkaturatzeetan arrisku analisiak eta arriskuen arintzeak hobetzea gomendatzen zaie agenteei.





## Legezko zuraren betekizunak errespetatzeko lanean

MAPA erakundeak hainbat mailatan egiten du lan arauaren eraginkortasuna areagotzeko eta zuraren kontsumoari lotutako basogintza, merkataritza eta gizarte arauen errespetua bermatzeko xedearekin.

### Nazioarteko koordinazioa

- ▶ **Europako Batzordeko FLEGT/EUTR adituen taldea.** Brusela, 2018ko irailak 27 eta abenduak 7. Batzordearen eta 28 estatu kideen arteko bilerak Europar Batasunean FLEGT eta EUTR erregelamendua aplikatzeko irizpideak bateratzeko xedearekin. ([Ikus](#) taldearen bileren inguruko informazioa).
- ▶ **EB-Indonesia mintegi teknikoak FLEGT Elkarte Akordio Boluntarioaren inplementazioaren inguruan.** Brusela, 2018ko azaroak 13. Esperientziak elkartrukatzea Indonesiako FLEGT lizentzia sistemaren inplementazioaren eta hauen Europako harreraren esparruan.
- ▶ **TREE (Timber Regulation Enforcement Exchange) nazioarteko prozesua.** Hanburgo (Alemania), 2018ko urriak 11-12. Azken bost urteetako bilakaeraren analisia, Europar Batasuneko EUTR erregelamendua abian jarri zenetik.
- ▶ **Basogintza delinkuentziaren inguruko nazioarteko konferentzia.** Lyon, 2018ko irailak 10. Nazioarteko basogintza segurtasuna sustatzeko moduen bilaketa berrikuntza teknologikoari eta nazioarteko polizia lankidetzaren areagotzeari esker.

### Koordinazio nazionala

- ▶ **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren (MAPA) Nekazaritza eta Landa Garapeneko Konferentzia Sektoriala.** Madril, 2018ko urriak 8. Merkaturatutako zuraren legezkotasuna kontrolatzeko Plan Nazionalaren onarpena.



## Legezko zuraren betekizunak errespetatzeko komunikazioa

Hainbat ikastarotan parte hartu dugu eta hainbat ikastaro sustatu ditugu EUTR betebeharrak ezagutzera emateko xedearekin.

- ▶ **Legeria, kontrol eta ikuskaritza fitosanitarioa: prozeduren bateratzea.** Internet bidez, 2018ko azaroaren 21ean, aurkeztu zen FLEGT lizentzien sistema: merkataritza bidalketarako kontrol jarduerak eta identifikazio printzipioak.
- ▶ **EUTR erregelamendua Espainian aplikatzeko jardunaldia, SEPRONA erakundeari zuzendua.** MAPA eta Guardia Zibila. Madril, 2018ko irailak 26. Guardia Zibilari zuzendutako prestakuntza 2019ko hasieran burutuko den EUTR ikuskaritza kanpainaren ingurukoan.
- ▶ **Basogintza produktuen iraunkortasunaren eta legezkotasunaren inguruko ikastaroa, EUTR erregelamendua. PFFC basogintza ziurtapena Garapen Iraunkorrerako Helburuen esparruan.** PEFC Espainia, Innova Verde Proiektuaren esparruan. Madril, 2018ko abenduak 12. MAPAren partaidetza. EUTR araudia eta basogintza ziurtapenaren eginkizuna ezagutzea zuraren legezkotasuna, iraunkortasuna eta trazabilitatea bermatze aldera.



**EUTR**  
erregelamenduaren  
inguruko nazioarteko  
berrien aldizkariak

*\* Aldizkari hauetako edukiek  
autoreen iritzia islatzen dute.  
MAPA erakundeak ez du  
inolako erantzukizunik hartzen  
informazio horri eman dakioken  
erabileraren inguruan.*

- ▶ **Europar Batasuneko informazio oharrak**  
2018ko ekaina-abuztua – **Ikus aldizkaria**  
2018ko iraila - 2018ko urria – **Ikus aldizkaria**
- ▶ **EUTR berriak**  
Client Earth, 2018ko ekaina-urria – **Ikus aldizkaria**



#FLEGT edo #EUTR erregelamenduen inguruko zalantzaren bat?  
@mapagob ministerioak abian jarri du #LIGNUM, Espainiako zuraren merkataritzaren  
inguruko informazio sistema (#España #maderalegal)

<https://twitter.com/mapagob/status/1068865811442540545>



**Informazio gehiago**

[https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/politica-forestal/Madera\\_Legal\\_FLEGT\\_EUTR/](https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/politica-forestal/Madera_Legal_FLEGT_EUTR/)

**“Legezko zuraren inguruko berrien aldizkarira harpidetu eta Espainiako zuraren merkataritzaren arloko araudiari buruzko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren informazioa jasotzeko, egin eskaera hemen: **ALDIZKARIRA HARPIDETZA**. Estekak funtzionatzen ez badu, bidali posta elektronikoki bat zure harremanetarako datuekin **maderalegal@mapama.es** helbidera, honako gaia adierazita: ‘Alta boletín de la madera’.**

Datu pertsonalen babeserako politikaren inguruko informazioa **hemen**”